

JAIOTZA-INSKRIPZIOA

Pertsona bat jaiotzen denean, erregistroan inskribatu behar da jasota gera dadin. Une horretatik aurrera, pertsona horri eragiten dion edozein inguruabar sozial edo familiarra (adopzioa, izenaren aldaketa, ezkontza, heriotza...) Erregistro Zibilean jasota geratuko da.

NOLA EGIN SEMEA EDO ALABA BATEN INSKRIPZIOA

INSKRIPZIOAK EGITEKO TOKIA

.- Iruñeko Erregistro Zibila: **ALDEZ AURRETIKO ZITA 848424012**

Erregistro Zibila
Antso Azkarraren etorbidea, 8
astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

..- Gurasoen bizilekuari dagokion Erregistro Zibila. Kasu honetan, Irurtzungo Erregistro Zibilean.

INSKRIPZIOA EGITEKO EPEA

..- Haurra jaio eta hurrengo 8 egunetan.

.- Kasu berezietan, arrazoi justua badago, epea 30 egunetara handituko da. Arrazoi berezi batengatik, jaiotza-inskripzioa hogeita hamar eguneko epea igaro ondoren egiten bada, inskripzioa epez kanpoko jaiotza-inskripzioa izeneko espedientearen bidez egin beharko da ezinbestean.

LEHEN AUZIALDIKO EPAILEAREN ardura da, ez BAKE EPAILEARENA.

HALAKOETAN, INSKRIPZIOA EZINGO GENUKE IRURTZUNGO ERREGISTRO ZIBILEAN EGIN, IRUÑEAN BAIZIK.

NORK EGIN DEZAKE INSKRIPZIOA

.-Gurasoak ezkontuta badaude, izapidea aitak, amak, haurraren senide batek edo jaiotzaren berri gertutik izan duen edonork.

.-Bi gurasoek, baldin eta izatezko bikotea bada. Ama bananduta edo dibortziatuta badago, zirkunstantzia hori dagokion sententziaren bidez egiaztatu beharko du.

.-Ama, ezkongabea bada.

.-Ama adingabea bada, legezko ordezkariak lagunduta agertu beharko da.

BEHARREZKO AGIRIAK

.-Inskripzioa Iruñean egitea:

.-Jaiotza egiaztatzen duen medikuaren agiria, behar bezala beteta (ospitalean ematen duten agiri horia).

.-Haurraren datu pertsonalak jasotzen dituen buletin estatistikoa, behar bezala beteta.

.-Bi gurasoen NANA edo pasaporteak.

.-Familia liburua (baldin badu).

.-Inskripzioa Iruñetik kanpo egitea:

Aurreko atalean adierazitako agiri guztiak eta horiez gain:

.-Erroldaketa ziurtagiria.

.- Ospitaleak egindako ziurtagiria, haurra ez dela beste inongo Erregistro Zibilean inskribatu egiaztatzen duena.

INFORMAZIO GEHIAGO

.-FAMILIA UGARIA

.- Gizarte Zerbitzuetan eskatzen da.

.-JAIOBERRIA OSASUN PRESTAZIOEN ONURADUN BEZALA SARTZEA

.-Gurasoetako bat Gizarte Segurantzaren alta emanda badago: Gizarte Segurantzako Arreta eta Informazio Zentrora joan behar da

Yanguas y Miranda kalea, 23

**HITZORDUA ESKATZEKO: www.seg-social.es web-orrian EDO 948
289410 TELEFONORA DEITUZ**

.- Aurkeztu beharreko agiriak:

- .Familia liburua.**
- .Titularraren NANA**
- .- Osasun txartela**

.-JAIOBERRIAREN OSASUN TXARTELA ESKATZEA

Jaioberriaren bizilekuari dagokion osasun-zentroan eskatu behar da, eta honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- .- Yanguas y Mirandan hartutako Gizarte Segurantzaren kartilla.**
- .- Familia liburua eguneratua.**

.-PRESTAZIOAK ETA LAGUNTZAK

Amatasun eta aitatasunagatiko prestazioa Gizarte Segurantzaz izapidetzen da. Laguntza hauei edo beste batzuei buruzko informazioa behar izanez gero, 1 zenbakidun Gizarte Laneko Bulegora jo dezakezu (Amentzako ospitaleko sarreraren ondoko barrakoietan dago), 11:30etik 13:30era.

